

The logo for EquiLing, featuring the word "EquiLing" in a white, bold, serif font. The text is centered within a bright pink oval background.

EquiLing

Euskal hiztunok jabetzen gara
egunerokoan bizi dugun testuinguru
sozialaz?

Estibaliz Amorrortu

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

2025/11/04, Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunea

Saioan egingo dugun ibilbidea

1. Gaiari sarrera eta kontzeptu garrantzitsuak
2. *EquiLing* ikerketa aurkeztu
3. Kontzientziazio-espazioak zelan erabiltzen ditugun erakutsi
4. Espazio segurua eta zubi-espazioa
5. Metodologiaren gakoak
6. Kontzientzia soziolinguistiko kritikoa lantzeko baliabideak
7. Moderatzaileak proposatuko duen jarduera
8. Azken gogoetak

1. Sarrera

- Kontzientzia soziolinguistiko kritikoa
- Testuinguru sozialaz jabetzea
- Freire: kontzientziazioa → hausnarketa + ekintza
- Kontzientziazio-espazioak sortu
- Espazioa aztertu: hizkuntza-ideologiak eta arau sozialak

Freireren pedagogia kritikoa (1968):


conscientização

- 1) ordena soziolinguistikoari buruzko hausnarketa egin eta **berdintasun-eza** soziolinguistikoak **identifikatu**
- 2) Berdintasun-eza horien **zergatiak aztertu**
- 3) berdintasun-eza egoera hori eta haren kausak **eraldatzeko erabakimena** mobilizatea

NOLA?

kontzientziazio-espazioak sortuz

2. *EquiLing* ikerketa



**Deustuko
Unibertsitatea (DU)**

**Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola
(BAM)**



2.1. Ikerketaren faseak:

1. FASEA (2018ko martxoa–maiatza): 4 taldekako saio.
2. FASEA: *Euskaraldia – 11 egun euskaraz* (2018ko urria–abenduaren 3a)
3. FASEA: *Jarraipen elkarrizketa* (2020ko azaroa–abendua)
4. FASEA: *Emaitzen itzulera / taldearekin kontrastea* (2021eko ekainaren 15a)


2.2. Gazteak ko-ikerlari

Jarduera bat egin

Hausnarketa taldean




F4: Bakarka eta taldean lanean



F4: Partaide baten mudantza-prozesua

3. Kontzientziazio-espazioan testuinguru sozialaz jabetzeko: adibide bat lehen faseko lehen saioa



100 txanda- hartzea	Cristina: “Zu zer zara, mendian bizi zara? ”
104	Cristina: Ba igual bakarrik uste dute ba mendian iten dala edo mendi inguruen edo ez dakit, eta ba horregatik.
105	Iker: Nire ustez halako gauzetan eh...oso a la defentsiban gaude beti ez dakit, eh... ez denez oso normala hemen Bilbon hitz egitea euskaraz , pues yo que sé, justu euskara erabiltzen banago eta norbaitek begiratzen banau ya pentsatzen dut “Joer ba...”
107	Iraitz: Hemen, Bilbon, hirian, nik Bilbon nire lagunekin erdaraz hitz egiten dugu eta euskaraz hitz egitea es como, Buah!! Euskaraz hitz egitea! O sea ez dago, hemen ez gaude ohituta euskaraz hitz egitera gure artean. (107)
324	Iraitz: Niri gertatu zitzaidana [lagun baten izena]-rekin, euskeraz hitz egiten ikustean esaten duzu “Buah! qué freaky ”, edo “Buah! ze astuna, qué pelma”, ¿no?

Espazio segurua denon artean eraiki

- Espazio segurua, konfidantzako espazioa, epaituta sentitu ez
- Akonpainamendua: “hitz egiten eta elkarrekin lan egiten ikasteko prozesu sozial iraunkor, negoziatu bat da, non parte-hartzaileek ekarpena egiten duten espezializazio- eta ulermen-modu desberdinean eta hortik etekina ere era ezberdinetara ateratzen duten” (Bucholtz et al. 2016).
 - Ikerlariak, helduek
 - Parekideak, gazteak elkarri

ETA LORTU GENUEN:

Espazio segurua lortu genuen. Gakoak:

*Maider: Nik hasi nuen ikerketa hori beti beldurrarekin zeren nik euskararekin daukadan harremana da, ez dakit, alde batetik gozoa da baina bestetik oso garrantza da, ba **mila beldur** dauzkadalako barruan. (...) Eta igual ikerketarekin egin genuena[k] (...) niri lagundu zidan pila bat. **Beste pertsonak entzutea** eta hori, beldurrak kontatzea, **beldur gabe**. Hori izan zen itzela eta bai nabaritu dudala, ikerketak aurrera egin ahala, nik euskararekin daukadan harremana sendotu edo o sea, (...) **gusturago** sentitzen naizela. Osea, beldur nahikotxo kendu ditudala (F2an jasota, 2018ko abendua).*

*Maider: Niretzako alde batetik zuk esan duzuna, o sea, argi eta garbi, **elkarrekin hausnartzea**, bizipenak, sentimenduak, **sentimenduak elkarbanatzea**... (...) **Espazio seguru bat**, esateko “lotsa sentitzen dut, beldurra sentitzen dut”, dena delakoa. (...). Sentitu nintzen **babestu** moduan. Niri gertatu zait, ta besteei ere bai. (F3: 2020/12)*

Akonpainamendua:

- **Moderatzaileek**: jardueren diseinuaren bidez, konfidatza sortu, ez epaitu, jokabide hierarkikoak ekidin, galderak egin, esandakoaren laburpenak egin, informazio berria eskaini, esperientzia pertsonalak konpartitu
- **Berdinkideen artean**: galderak egin, verba egiten segitzeko animatu, azlapenak osatu, entzeko edo oso esperientzia ezberdinak konpartitu, eztabaidagai berriak proposatu

“BAKARRIK EZ ZAUELA ERAKUTSI”

Kontzientziazio-espazioan ikasitakoa beste espazio batzuetara eramatea: zubi-espazioa.

*Markel: Bai, nik familiarekin euskaraz hitz egiten dut normalean, lagun gehienekin be bai, baina lagun horiekin ez dudana euskeraz egiten, (...) **aldatu dute beraiek txip hori** eta euskaraz hasi dira (...). Bai, gaztelera erabili dut, logikoki, baina, euskara sumatu dut bai, ba **Deustu baten** adibidez, **bizi nintekeela euskaraz** (F2, post-elk), 2018/12.*


4. Laburpena eta gakoak

- Kontzientziazio-prozesua laguntzeko baldintzak eskaini
- espazio segurua
- akonpainamendua
- gogoeta
- taldean

agentzia eraldatzailea garatzeko eta
ikasitakoa beste espazio batzuetara eramateko

5. Kontzientzia soziolinguistiko kritikoa lantzeko baliabideak

- EquiLing weba: www.equiling.eu
- *Euskaldun kontzienteak hezteko dinamizatzaileentzako Gida*, eta beste batzuk
- *Hizkuntzan parte hartu, hizkuntza partekatu: Ikerketa-ekintza partehartzailea gazteekin* dokumentala




EquiLing

EquiLingi buruz Azpiproiektuak Jarduerak Glosarioa Argitalpenak Hedabideak

Baliabideak Ekintza eraldatzaileak

ES EN CA EU GL

Euskadi



Eskerrik asko!